

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARTZINIEGAKO UDALA

Ibilgailuen gaineko 2020ko zerga eta urez hornitzearen, estolderiaren eta zaborren 1/2020 tasa ordaintzeko epea

Nik, Joseba Vivanco Retesek, Artziniegako Udaleko alkateak, jakinarazten dut:

2020ko maiatzaren 27a eta uztailaren 27a bitarteko egun baliodunetan (biak barne) kobratzeko jarriko dira, borondatezko epean, bai trakzio mekanikoko ibilgailuen eta horien atoiaren gaineko 2020ko zergaren ordainagiriak, bai etxeak edateko urez hornitzearen, estolderiaren eta zaborren tasaren ordainagiriak, 2020ko lehen seihilekoari dagozkionak.

Eragindako zergadunek udalaren gordailuzaintzan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, bulego orduetan, epe horretan.

Halaber, zergadunei gogorarazten zaie banku entitate edo aurrezki kutxetan helbideratuta egin ahal izango dutela ordainketa.

Behin epe hori igarota, premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, bat etorritik indarrean dagoen dirubilketarako arautegi orokorrean ezarritako xedapenekin.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Artziniega, 2020ko maiatzaren 13a

Alkatea

JOSEBA VIVANCO RETES